

# ESKOLAKO AGENDA 21 2017-2018 - BEASAIN

## “LURZORUA”

Trikitiaz alaiturik, ikasle guztiak elkarrekin batzar aretora sartuko gara. (Udaletxe aurreko plazan geratuko gara 9:25etan, ahal baduzue lehenago azaldu).

Ikastetxe bakoitzeko ordezkariak batzar aretoko mahaian eseriko dira.

Rosa Aurkiak, Udalaren izenean, saioari hasiera eta denboraren kontrola eramango du.

Ikastetxeek prestatutako **bertsoak** abestuko dira. Hasieran hiru bertso:

- Murumendi
- Andramendi
- Alkartasuna

Ikastetxe bakoitzak iaztik zein **konpromiso** betetzen ari den eta zein ez esan behar du (labur-labur). Atal hau ikastetxe bakoitzak berea landu behar du. Ikastetxe bakoitzak erabakitzekeo mahaian dagoen zein ikaslek esango duen eta honela izango da ordena:

- La Salle
- Alkartasuna
- Andramendi
- Murumendi
- Institutua

Aurten egin den lana azaltzen hasiko gara.

Jarraian Eskolako Agenda 21 programaren lanketan herri mailan egindako lana aurkeztuko dizuegu herriko ikastetxe guztietako ikasle ordezkarien artean.

Beasaingo 5 ikastetxeetako ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitateak ingurugiro arazoez kezkatu gaude. Hori horrela, **Eskola Agenda 21** programaren bidez urtero-urtero lan egiten dugu inguruan atzeman ditugun arazoei aurre egiteko.

Hamahirugarren ikasturtea dugun honetan, iaz bezala aurten ere “LURZORUA” gaia landu dugu, bai ikastetxeeko egoera ikusteko eta aztertu ditugu zein diren arazoak eta alternatibak landu. Herriko egoera ere aztertu dugu, herriko diagnostikoa eginez.

Herriko diagnostikoa gauzatzeko hainbat irteera egin dira herrian zehar, udalerriko eta eskualdeko datuak eta informazio ezberdinak aztertu ditugu.

Orain zikloz ziklo egindako herri diagnostikoa eta adostutako ondorioak aurkeztuko ditugu.

La Salle DBH

Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleek egindakoa azalduko dizuet. Herri mailako diagnostikoa aurrera eramateko herriko berdeguneak eta parkeak aztertu ditugu eta hauen ezaugarri eta erabilerak aztertu ditugu. Ondorengo ondorio hauek atera ditugu:

- Auzoetako egoera nahikoa egokia da baina batzuetan berdeguneak zapalduta azaltzen dira eta askotan txakurren gorotzak aurki daitezke eta txorien soinurik ez dago.
- Nekazal guneak herrigunetik kanpo daude.

Alkartasuna

## Andramendi

Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko ikasleek egindakoa azalduko dut. Beasaingo kale desberdinak aztertu ditugu: Nafarroa etorbidea, zapatari kalea, Dulce Maria Loinaz kaleak. Horietan zer dagoen ondo aztertu dugu, bidegorriak dagoen, arrisku puntuak, espaloien zabalera, ...hauek dira ateratako ondorioak:

- Ikasle gehienak oinez etortzen dira etxetik eskolara baina kanpora atera behar dugunean gehienetan kotxez joaten gara.
- Bidegorriak, leku batzuetan bukatu egiten dira: Kale Nagusira sartzean eta Joxe Miguel Parkera joateko ez dago bidegorririk. Pertsona batzuk bizikletaz edo patinetez espaloitik joaten ikusten dira.
- Nafarroa etorbidean autobus geltokiak eta berdeguneak falta dira.

## Murumendi

Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloko ikasleek egindakoa azalduko dizuet. Beasaingo auzo ezberdinak aztertu ditugu eta bertan kokaturik dauden zerbitzuak kokatu ditugu: berdeguneak, denda, taberna, osasun-zentroak, elkarteak, polikiroldegiak eta abar. Ateratako ondorioak:

- Orokorrean, zerbitzuei dagokionez nahiko egoera ona dago. Baina kale batetik bestera aldeak daude: Foru kalean zerbitzu maila oso baxua eta Nafarroa Etorbidean, aldiz, oso altua da. Kirol guneak eskoletan bakarrik daude. Euri asko egiten duenean, Ezkiaga auzoa urez betetzen da.
- Arrisku guneak:
  - o Eskola inguruko zebra-bideetan kotxeak aparkatzen dute, ikusmena gutxituz.
  - o Foru kalean zuloak daude elizatik gora.
  - o Tren estazioko irteeran arrisku handiak daude: oinezkoak, bizikletak eta kotxeak elkartzen dira.

## Loinazpe

Bigarren Hezkuntzan egindako lana aurkeztuko dizuet. Landareak urreztatzeko robot bat garatu dugu eta Elhuyar Zientzia Azokan aurkeztu dugu saria lortuz. Bestalde, galdetegi baten bidez, eta informazio iturri ezberdinak erabiliz (web orri bat udalplan, Udalmap,...) Beasain udalerrriaren lurzoruaren erabilerari buruzko azterketa egin dugu. Hurrengo alderdi hauek begiratu ditugu: lurzoru urbanizatua eta urbanizatu gabea eta azken honen erabilera. Eta diagnostiko horretatik zera ondorioztatu dugu:

- UDALMAp erreminta erabiliz, gure herrian, biztanleko 6 m<sup>2</sup> baino berdegune gutxiago dagoela ikusi dugu. Eta Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) dioenez, hiri bakoitzak gutxienez 10 eta 15 metro<sup>2</sup> artean eskaini behar ditu berdeguneetan biztanleko.

## Txindoki

Batxilergoko ikasleek egindakoa azalduko dizuet. Galdetegi baten bidez, eta informazio iturri ezberdinak erabiliz (web orri batzuk, Geoeuskadi bisorea, eustat, udalplan....) Beasain udalerriaren lurzorua erabilerari buruzko azterketa egin dugu. Hurrengo alderdi hauek begiratu ditugu: lurzoru urbanizatua eta urbanizatu gabea eta azken honen erabilera, landaredi motak, basoen ustiapena nolakoa den eta honen ondorioak, nekazaritza eta abeltzaintzaren ondorioak, gune babestuak badauden eta kutsadura. Ondorengo ondorioztatuz:

- GEOEUSKADI erreminta erabiliz, Oria ibaiaren egoera kimikoa ona dela ikusi dugu baina egoera globala txarra dela ikusten da, bertako biodibertsitatearen kalterako. Gurea oso gune industrializatua baita.
- Landaredi potentziala haritza, pagoa eta haltzadia diren arren gaur egun pinuak eta alertzeak hartzen dute leku gehiena, etekin ekonomikoak handiagoak direlako baina hauen ustiatzeko moduagatik higadura gertatzen da eta lurzoria galtzen da.

## La Salle LH

Orain azaltzen ari garena adosteko zer egin dugun azalduko dizuet. Apirilaren 17an ikastetxe guztietako ikasle ordezkariak Eskolarteko Foroan bildu ginen Udaletxean eta gero taldeka, ondorioak, konpromisoak eta proposamenak adostu genituen. Amaieran talde guztiak Batzar areto honetan bilduta orain aurkezten ari garena adostu genuen.

Gure lurzoria zaintzeko eta jasangarriagoa izateko guztion lana beharrezkoa dela badakigu eta ikasleok gure esku dauden konpromiso batzuk hartu edo berritu ditugu:

1. Landare zein animaliak zaindu eta zaborrak behar den tokira bota behar den tokian "kartelak" ipiniz. Herriko eta gure ikastetxeko berdeguneak errespetatuko ditugu: Zuhaitzak landatu eta zaintzeko prest gaude.
2. Materia organikoarekin kalitateko konposta sortzen saiatuko gara eta ondoren ongarri bezala erabiliko dugu.
3. Gutxiago kutsatzeko neurriak hartuko ditugu: zaborra gutxiago sortuko dugu, zaborra ondo bereiztuz, hamaiketako tupperrean ekarriz, oihalezko poltsak erabiliz,.....

## La Salle DBH

Hauek dira hartu ditugun beste konpromisoak:

4. Ahalik eta gutxien erabiliko dugu autoa, garraio publikoa erabiliko dugu.
5. Semaforo eta zebra-bideetan begiratu egingo dugu.
6. Bidegorria erabiliko dugu eta ez dagoen tokietan kontuz ibiliko gara.
7. Eskola hezkuntza eremu ezberdinetan eta kirol-gunetan parte hartuko dugu eta erabiliko ditugu. Hauek txukun eta era egokian mantenduko ditugu.
8. Lurra eta ibaiak zaindu eta errespetatuko ditugu: lorontzietako landareak zainduz, berdeguneak zainduz, plastikoak ez ditugu ibaira edo lurrera botako,....
9. Biztanleek urrun ditugun zerbitzuak erabiltzeko oinez edo txirrinduz joango gara.

## Andramendi

Hau da hondakinei buruz Udalari luzatzen diogun proposamena:

1. Kaleko zakarrontzi gehiago eta egokiagoak jarri (errefusa, organikoa, plastikoa eta papera bereizteko) eta txakur kakak jasotzeko zakarrontziak ere jarri. Adibidez, Ikastolan ez dago zakarrontzi nahikorik.

1. Zakarrontziak aldatzeko asmoa dago eta aldaketa hau faseka egingo da. Zakarrontzi karratuak erdigunera ekarriko dira (20 puntu) eta kendu diren puntuetan betiko zakarrontziak jarriko dira, lau koloretan (Tolosan dauden berdinak). Jaien ondoren hasiko dira aldaketa hau egiten. Urbialde plazako eskaera jasota dago eta bertan ere zakarrontzi hauek jarriko dira.

Hauek dira berdeguneen inguruan egiten dizkiogun eskaerak:

2. Berdeguneetan zonaldeko ekosistema aberastu: Berdeguneak harresi txikiekin babestuak egon eta berdeguneetan putzuak egin animalia gehiago bizi ahal izateko.
3. Txori gehiago egoteko herriko zuhaitzetan kabi-etxetxoak jartzea.
4. Berdegune berriak ireki edo egin

2. Hezegunerik ez da egingo baina dauden elementu naturalak Udalak zaindu egingo ditu.

Adibidez, katuak bere katakumeekin egoteko zuhaixka espezifiko bat behar dute eta parkeetan jartzen ari gara. Gai hau aztertzen dugu eta pixkanaka saiatzen ari gara aldaketak egiten baina oreka bat mantenduz.

3. Badakigu hainbat udalerrietan Aranzadikin batera ekimen hau martxan jarri dutela eta guk, gure aldetik, gai hau aztertu egingo dugu, oso interesgarria iruditzen baitzaigu.

4. “Dolarea parkearekin zer egin?” Parte hartze prozesua jarri genuen martxan eta bertan lortutakoa, parke berde bat izatea izan zen baina gaur egun baino berdeagoa. Arkitekto talde bat proposamen hau lantzen ari da.

Bestalde, herrigunean dugun Sagastiguti parkea ez dugu ahaztu behar, parkea bertan dugu baina askorentzat ezezaguna da. Leku zoragarri, paregabe eta oso berdea da.

Hauek dira Beasainen zebra-bide eta bidegorrian inguruan egiten ditugun proposamenak:

5. Udaltzainek kontrolatzea kotxeak zebra-bideetan ez aparkatzeko eta zebra-bideak berrikustea era egokian daudela.
6. Seinale bereziak jartzea zebra-bide eta bidegorri bat elkartzen diren tokietan:
  - a. Tren geltokitik Udaletxe aldera, pergoletako aparkalekua eta trenbidearen artean zebra-bide bat jarri.
  - b. Tren geltokiko irteeran, zebra-bidea, bidegorria eta errepidea, dena batera dago. Bidegorrian seinalizazio hobea.
7. Bidegorriaren osaketa aztertzea eta osatzen saiatzea eta oinezkoen espaloi zabal gehiago jartzea.

5. Ikastetxeetako sarrera-irteeratan Udaltzainek malgutasun batekin jokatzeko dute eta agian zuen ikastetxe inguruan kotxeak zebra-bideetan ikusten dituzue

baina bestela gai hau kontrolatu egiten da eta autoei ez zaie zebra-bide gainean egoten uzten.

Ikastetxeetako kasuan, autoz joan beharrean oinez joango bagina arazo hau ekidin egingo genuke.

Zebra-bideak berrikusi egiten dira eta gaizki argizatutako zebra-bideak argiztapen egoki batekin jarri ditugu.

Ez dugu ahaztu behar Bernedoko aparkalekua ikastetxe guztietatik (Institutua ezik) 10 minutura dagoela.

6.

a. Proiektuan dago kale honen eraldatzea. Erauskin plaza oineztatu egingo da eta hau erabakitzeke parte hartze prozesu bat egin zen. Prozesu honetatik oineztatzea egitea erabaki da baina trenbideko aldean aparkaleku gehiago egiten badira.

Orain proiektua aztertzen ari dira eta bi aldaketa hauek proposatzen dira:

- Trenbideko kalean ezkerreko aldean aparkatu linean (gaur egun eskuin aldean aparkatzen da). Horrela ez da errepidea igaro behar.

- Barruko aparkalekuan bi aldeetan baterian aparkatzeko aukera.

Antzizarretik herrigunera kotxez etortzeko eskuinera hartu behar dugu eta trafiko guztia trenbide kaletik joaten da. Orain, hau ekiditeko berreskuratu egin nahi da lehen zegoen norabide bikoitza eta trenbide kaleko trafikoa asko murriztuko da.

b. Bidegorria seinalizatuta dago baina tren geltokiko irteera oso bidegurutze arriskutsua da. Mugikortasun plan bat egin nahi dugu eta herriaren diagnostiko bat egingo da eta bertan herriko arrisku puntuak azalduko dira.

7. Bidegorri ardatza eginda dago baina mugikortasun plan bat egingo denez, azterketa osoa egingo da eta bertatik ekintzak izango ditugu eta horietako bat, bidegorriaren osaketa izango da.

Nekolalde kalean, espaloia estua denez, errepidea eta espaloia altura berdinean jarriko dira, bizikidetasun zona bat bihurtuz. Ahal den espaloietan irisgarritasun legeak ezarritako 2 mko zabalera betetzen da.

Loinazpe

Hau da zerbitzuen inguruan egiten ditugun proposamenak:

8. Zerbitzu berriak kokatzerakoan kontutan hartzea zein auzoetan falta diren:

a. Igartzan liburutegi edo elkarte bat sortu.

b. Foru kalean eserleku gehiago jarri

c. Olanan kirol gunea izatea (rokodromoa, saskibaloia,...)

d. Nafarroa etorbidean autobus gehiago jarri

8.

a- Igartzak beste helburu bat dauka eta gainera, Igartza elkarte askoren gunea da. Auzoan kiroldegia bertan dago eta elkargune bat izaten da eta bestalde, Dolarea parkea ere bertan dago baina bere erabilpena ez da oso handia. Parke honen erabilpena sustatuko balitz, bigarren pausua izan daiteke parke hau estaltzea.

b- Kale honetan banku batzuk jartzea aztertuko da, herriko beste hainbat tokietan egin den bezala. San Inazio kalean bankuak jarri ziren baina espaloia gutxienez 2 mkoa jarri behar dugunez, bankuak jartzean batzuentzat oztopoak dira (itsuak, gurpildun aulkian ibiltzen diren pertsonak,...)

- c- Olaranek 3.000 m<sup>2</sup> dauzka eta ondare bezala izendatuta dago eta edozer gauza ezin daiteke egin. Proiektu asko daude mahai gainean eta partaidetza prozesu bat jarri nahi dugu martxan eta ikastetxeek ere bertan parte hartzeko aukera izango duzue.  
Kirol gune bezala proposatzen duzue baina herrian saskibaloian jokatzeko hainbat leku daude; La Salleko pista estalia, Murumendikoa, kiroldegikoa... eta BKLko eskaera hauekin asetua dago. Kiroldegian ere rokodromo berria jarri da eta bertan edozeinek praktikatu dezake kirol hau, maila ezberdineko rokodromoa denez.
- d- Nafarroa etorbidean geralekurik ez dago, kale honetan arrisku puntu asko daudela esan duzue eta hori horrela da, ondorioz, geltokiak zona seguruetan daude. Tren estazioan autobus asko geratzen dira, 80 bat lan egunetan. Goierrialdeko datu estimatuen arabera, Beasaindik Beasainera lanegunetan 1.200-1.500 bidai egiten dira.

Txindoki

Hauek dira adostu ditugun proposamenak:

9. Garraio publikoa merkeagoa edo behintzat ez garestiagoa izatea.
10. Baso kudeaketa iraunkorra burutzen duten enpresei diruz laguntzea sari moduan.

9. Autobus-txartel normalaren prezioa 1,75 € da eta apirilean 0,05 € igo zen. MUGI txartelarekin bidaia 0,94 €koa da.

MUGI txartelaren erabilpena bultzatu beharko genuke. Udalerrian MUGI txartela eskatzeko eta kargatzeko aukera dago. Orain, iGunean txartel hau eskuratzeko eta kargatzeko eskaera egin dugu.

10. GFAk bertako espezieak landatzeko diru laguntzak ematen ditu edo landareak prezio merkeago batean eskaintzen ditu eta Udalak gai hau sustatu nahi duenez, informazio hau emateko eta zabaltzeko konpromezua hartzen du. Usurben hitzarmen bat sinatuta dugu eta bertan bertako espezieak bakarrik landu daitezkeela zehazten da.

La Salle LH

Amaitzeko, milesker Udalari herriko haur eta gazteei herriko erabakietan gure iritzia emateko aukera eskaintzeagatik.

Era berean, guri entzunez egon zareten guztiei eskerrik asko izan duzuen arretarengatik.

Galderak egiteko tartea ireki da eta galdera eta eskaera hauek egin dira:

- Oriamendi kalean landareak jarri lorontzietan  
Ureztatzearekin arazoak edukitzen ari gara baina hau egiten saiatuko gara.

- Mariarats kalean zaborra lurrian uzten da.  
Goizeko 7etatik aurrera kale guztiak begiratzen dira, kale hau ere, baina udal langileei zure kexa luzatuko diet.  
Baina nik zuei ere lan bat egitea eskatuko dizuet, iluntzetan etxera abiatzen zaretenean atzealdera begiratzea eta ikustea zein egoeratan uzten duzuen parkea edo kalea. Garbiketa denen arteko oreka bat da, guk garbitzen dugu baina gutxiago zikintzen badugu, arazo hori txikitzen doa.  
Hala ere, Beasaindar guztiak zoriondu behar ditugu gaikako bilketa tasa %78 batetan baitago.

Bukatzeko ikastetxeetako bertsoak abestuko dira. Bi bertso:

- Institutua
- La Salle

Eta saioari amaiera ematen zaio hamaiketako osasungarri eta jasangarri batekin.